

2016ko RAMON Y CAJAL DOKTOREGO ONDOKO LAGUNTZEN DEIALDIA

MINECOk 175 laguntza deitu ditu I+G zentroetan ibilbide nabarmena duten Estatuko eta atzerriko ikertzaileak hartzea sustatzeko.

Laguntzen ezaugarriak:

Guztira 175 laguntza deitu dira, eta horietatik 3 % 33ko ezgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak kontratatzeko gordeko dira. Gainera, 40.000 euroko laguntza gehigarri bat emango zaio onuradun bakoitzari ikerketa jarduera gauzatzearekin zerikusi zuzena duten gastuak ordaintzeko.

Kontratuen ezaugarriak:

Kontratuen iraupena gehienez 5 urtekoa izango da. UPV/EHUra sartzen diren onuradunek 31.600 euro gordin jasoko dituzte urtean.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- a. Doktore gradua edukitzea honako data hauetan (lortutako lehenengo titulua):

EGOERA:	EPEA
Sartzeko epe orokorra	2006/01/01etik 2013/12/31ra bitartean
Amatasun edo aitatasun aldietako etenak	Epe orokorra urtebete zabalduko da (baja gertatu bada 2006/01/01etik 2017/01/24ra bitartean).
Eskatzailearen gaixotasun larria edo istripua (gutxienez, 3 hilabete).	Justifikatutako baja-aldia adina zabalduko da, eta gorantz biribilduko da hilabetea osatu arte. (baja gertatu bada 2006/01/01etik 2017/01/24ra bitartean).
Mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzea (gutxienez 3 hilabetez)	Justifikatutako aldia adina zabalduko da, eta gorantz biribilduko da hilabetea osatu arte (baja gertatu bada 2006/01/01etik 2017/01/24ra bitartean).
Ezgaitasunen bat duten pertsonentzako epea	2003/01/01etik 2011/12/31ra bitartean

- b. Aurreko Ramón y Cajal deialdietako laguntza bat jasotakoa ez izatea.
- c. Juan de la Cierva laguntza baten edo doktorego ondoko prestakuntzarako laguntza baten onuraduna ez izatea, gutxienez urtebetean jaso dutenen kasuan izan ezik; aldi hau zentroan sartu eta 2017/06/01era bitartean zenbatuko da.
- d. **GARRANTZITSUA:** Ikertzaileek gutxienez 24 hilabeteko egonaldia egiaztatu behar dute UPV/EHU ez diren I+G zentroetan, azkenean hor sartuko balira.

Eskaerak aurkezteko epea:

Abenduaren 13tik 2017ko urtarrilaren 24ko 15:00ak arte.

GARRANTZITSUA:

Ikertzaileena izango da eskaera epe barruan eta behar bezala aurkezteko ardura. Ikertzaileek aurkeztutako eskaerek **ez** dute UPV/EHUko legezko ordezkariaren onarpena beharko.

Ikertzaileek eskaera aurkeztea:

Eskaera bere aldetik egingo dute ikertzaileek eta I+G zentroek. Hortaz, eskatzaileek honako urrats hauek eman beharko dituzte:

1. Eskatzaileen Erregistro Bateratuko (RUS) "Ikertzailearen Erregistroa" atalean inskribatuko dira: <https://sede.micinn.gob.es/rus/>.
2. Eskaera formularioa beteko dute honako aplikazioan: <https://sede.micinn.gob.es/ryc/>.
3. Eskaera erregistratuko dute deialdiaren 24. artikuluan deskribatutako prozeduretakoren bat jarraituz.

MINECOren webgunean eskura dagoen **ohiko galderen zerrenda** kontsultatzea gomendatzen da:

http://www.idi.mineco.gob.es/stfls/MICINN/Ayudas/PE_2013_2016/PE_Promocion_e_Incorporacion_Talento_y_su_Empleabilidad/FICHEROS/SE_Incorporacion/Ayudas_cont_ratos_RYC_2016/FAQ_RyC_2016_v1.pdf

UPV/EHUK eskainiko dituen plazak hautatzea:

UPV/EHUK plaza kopuru mugatua eskainiko du deialdi honetan. Ramón y Cajal ikertzaile bat hartzeko interesa duten ikertaldeek Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean eskura dagoen "Interes adierazpena" formularioa bidali beharko dute pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera **2017ko urtarrilaren 5a, eguna, baino lehen**. Egun horretatik aurrera jasotzen diren eskaerak **ez** ditu ebaluatuko GIBBk.

GARRANTZITSUA: Gomendatzen da Errektoreordetzaren webgunean eskura dagoen "Interes adierazpena aurkezteko jarraibideak" kontsultatzea.

MINECOrekin harremanetan jartzeko:

Eskaera egiten duten ikertzaileek jarraian adierazitako formularioaren bidez egingo dizkiote kontsultak MINECOri:

<http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/menuitem.791459a43fdf738d70fd325001432ea0/?vgnnextoid=5996c7f1cc057510VgnVCM1000001d04140aRCRD&vgnnextchannell=67a04939e6b42410VgnVCM1000001d04140aRCRD&vgnnextfmt=formato2&id3=c0ea0bf4ea0b8510VgnVCM1000001d04140a>

UPV/EHUrekin harremanetan jartzeko:

UPV/EHUko taldeek "Interes adierazpena" aurkezteari buruzko galderak egiteko, eta zerbitzuaren kalitatea hobetzearren, honako helbide honetara jotzea gomendatzen da: pre-postdoc.dgi@ehu.eus, posta elektronikoaren gailan "Ramón y Cajal" aipatuz.

Informazio gehiago:

<http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/menuitem.791459a43fdf738d70fd325001432ea0/?vgnextoid=5996c7f1cc057510VgnVCM1000001d04140aRCRD&vgnnextchannel=67a04939e6b42410VgnVCM1000001d04140aRCRD&vgnnextfmt=formato2&id3=c0ea0bf4ea0b8510VgnVCM1000001d04140a>